

ANTONIO VALVERDE CASAS (1915-1970)

1970eko uztailaren 28an hil zen Oiartzunen. Antonio Valverde, Errenderian jaioa zen 1915eko urtarrilaren 17an.

Gure artean, bere lan askotan izenpetzen zuen «Ayalde» ere ezagutzen genuen. Zaragoza-ko Unibersidadean Derecho lizentziatura egina zuen. Donostiako Gráficas Valverde-ko nagusia, pintore bikaina eta idazle ona. 1961etik Euskaltzaindiko laguntzaile genuen.

Euskaraz, «El Bidasoa», «Egan», «Olerti», «Zeruko Argia», «Jakín» aldizkarietan kolaboratu zuen, maiz bere dibujekin. Erdaraz ere asko idatzia zen «La Voz de España» eta «El Diario Vasco» Donostiako egunkarietan.

Argitaratu zituen liburuak, erdaraz, *Con fondo de chistu* (Donostia, 1965), eta euskaraz, *Ibar ixillean* (Donostia, 1970). Liburu biak bere dibujak dituzte. Pio Baroja-ren *Mari Beltxa* euskarara itzuli zuen eta 1956-an «Egan» en argitaratua da.

Errenderiarra bazen ere, jaiotzez ez zen euskalduna; nagusitu ondorean ikasi zuen euskaraz, baina oso ondo egiten zuen, hobeto esan, ez zitzaion igartzen euskaraz gero ikasitakoa zenik. Pintoreaz gainera, oso kritikiko fiña zen arte gaietan, bere *Ibar ixillean* liburuan Regoyos eta Euskal eskolari buruz agertzen dituen hitzaldietan ongi nabari dan bezala. Bi hitzaldiok, euskaraz zenbait tokitan emanak zituen.

Euskaltzaindiak azken urte hauetan euskaltzain edo laguntzaile izendatzen dituenek, berak gertatutako diploma agiriak ematen dizkiote. Beraz, Euskaltzaindira datozten berrieri ez zaie faltatuko bere oroitzua. G. B.

J. S. M.

DOMINGO SOUBELET (1897-1970)

Baionan, Hiriburuko apez-xahartegian hil zen Domingo Soubelet jaun kalonje eta euskaltzaina, 1970eko uztailaren 28an. Hazparnen sortua zen 1897ko abuztuaren 10ean.

Lehen mailako ikasgoak Hazparnen, bigarren mailakoak Beñen eta apezgoarakoak Baionako Seminario handian eginak zituen.